

«Heriotza zigorpean hil bada norbait, diktadura batean, hor ez dago bainarik»

JON MIRENA LANDA

EHUko Zigor Zuzenbideko katedraduna

Memoria politikak lantzeko, lehenik egia eskuratu behar da, Landaren esanetan. Hala, uste du iragan hurbilean jazotakoak argitzea eta biktimei aitortza egitea direla lehentasunak.

gertatutakoaren inguruan egia sortzeko, bestelako mekanismoe-tara jo behar dugu. Gogora-k eta Terrorismoaren Biktimen Oroi-menerako Zentroak ez dute na-zioarteko estandarren arabera-ko neutraltasun bermerik.
Zein dira estandar horiek?

Parisko printzipioek iradokizun batzuk ematen dituzte. Izenda-tu behar diren pertsonak, modu independentean jarduteaz gain, modu independentean jardutearen itxura eman behar dute. Orduan, izendapen prozesuan aniztasuna islatzeko bermeak

behar dira. Inor ez da erabat independentea, baina badaude formula estandarizatuak. Alderdi batekoa bada, nahiz eta pertsona hori neutrala izan, itxuraz ez da. Aurrekontuak ere garrantzi-tsuak dira. Independentzia ber-matzeko tresna izan behar dute.

Ateratzen diren ondorioak gober-nuari edo alderdi bati gustatzen ez bazaizkio ere, aurrekontuak bermatua egon behar du. Lan horiek zailak izaten dira, eta ezin dira emaitzen arabera ma-nipulatu. Egia mekanismoak dira formularik onena gaiak despoliti-zatzeko.

Biktimak. Txikiz eta Otaegiz aritzeko biktima-biktimario kontzeptua plazaratu dute zen-baitek.

Biktima-biktimario kontzeptua ez da berria. Kriminologian joan den mendean ere erabiltzen zen, batzuetan *biktima probokatzaile* etiketapen. Horrek adierazten zuen, puntu bateraino, biktimak erakarri duela gertatutako deli-tua. Kategoria horiek martxan jarri zirenean, berehala arbuiatu ziren, biktimen kontra jotzen du-telako, eta biktima horiek diskri-minatzea dakartelako. Azterketa kritiko bat egin daiteke pertsona horiek egin omen zituzten deli-tuen inguruan, baina ez dago zer-tan nahastu: heriotza zigorpean hil bada norbait, diktadura ba-tean, hor ez dago bainarik.

Nondik abiatu behar da horre-tarako?

Biktima-biktimario kategoriaren inguruan badago egia falta ikara-garri bat. Estatuak hainbat eta hainbat hilketa egin zituelako, giza eskubideen urraketa oso la-rriak, eta horiek ez direlako argi-tu. Eztabaidatzen hastea biktima horiekin zer egingo dugun egia-ren inguruko oinarri minimorik gabe... Egiarekin ez dut esan nahi batzuek edo besteek ezartzen duten egia, bermez jositako pro-zedura batek ezarri dezakeena baizik. Eta kasu hauetan, ETA ezberdinen mundu horretakoak direnean, askotan ez da ikerketa judizialik egon, edo oso motzak

izan dira. Beraz, ez dago oina-rriarik gertatu zenaren inguruan ondorioak ateratzeko.

Lan hori egiteko dago.

Orduan, nork esaten du bermee-kin zein den biktima-biktimario? Oraindik, aitortza erreibindika-tu behar da; ez da aitortu gerta-tu zena, eta ez dira erantzuleak identifikatu. Hori guztia egiten ez den bitartean, nola ezberdin-du aitortza eta omenaldia ere? Espainiako Estatuan, kategoria hori diskriminaziorako erabili da biktimen politiketan. Erabili zen biktima batzuk desagerrarazte-ko, biktima-biktimarioak eta es-tatuak eragindako beste biktima batzuk. Ez omenaldiak debeka-tzeari begira, baizik eta aitortza bera debekatzeko.

Hain zuzen, aitortzaren eta omenaldiaren kontzeptuak ez-tabaidagai izan dira kasu hone-tan.

Ezin da eztabaida hasi omenal-dietatik. Hasi beharko litzateke galdetuz ea estatuak nola tratatu dituen biktima horiek, eta zen-bateraino falta den egia. Batzuek omenaldi gisa ikusten dutena beste batzuek aitortza eskatzeko modu bezala ikusten dute. Bik-timaren inguruan, aldarrikapen bat egitean, euren hizkuntza era-bil dezakete, eta hor ez da erraza ezberdintzea aitortza eta ome-naldia. Halere, ez dut uste ome-naldiak egiteko gogotan direnik esanez momentu jakin batean etakide batek egin zituen delituak berriro ere egin behar direla. Hori onartezina litzateke. Baina, pla-zan, estatuari eskatzen zaionean aitortzeko hala polizien bitartez nola talde terrorista edo paramili-tarren bitartez egindakoak, adie-razpen askatasunak lekua izan beharko luke biktimak aitortuak ez diren bitartean. ●

BERRIAren albiste buletinak



HARPIDETU



- Astekaria
- Badok-en buletina
- Goizeko buletina
- Arratsaldeko buletina
- Kinka
- Mendia
- BERRIA Ikasgela
- Kazetaritza ardatz

aldi hau
kontatzeko
berria



MONIKA DEL VALLE / FOKU

Iosu Alberdi

LEIOA—Juan Paredes *Txiki* eta Angel Otaegiren exekuzioaren 50. urteurrena gerturatzen ari dela, ETA politiko-militarreko bi kide horiek gogoratzeko modua eztabaidagai izan da udan. Zauritzen jarritako olanaren hari-ra Gogora-ko zuzendari Alberto Alonsok haien inguruan esanak harrabotsa eragin zuen. EH Bilduk «irairagarritzat» jo zituen, eta Iñigo Urkullu Eusko Jaurlaritzako lehendakari ohiak «errespetua» eskatu zuen. Eztabaida hori oinarri hartuta, biktimez eta memoria politikez aritu da EHuko Zigor Zuzenbideko katedradun eta Giza Eskubideen eta Botere Publikoen Unescoren katedrako zuzendari Jon Mirena Landa (Bilbo, 1968), behin eta berriz azpimarratuz auzi horri heltzeko lehen urratsa egia ezartzea dela: «Tranpa bat da egia egin ez denean horrelako eztabaida etikoetan sartzea».

Hitzaldi batean aipatu zenuen gai hauei heltzeko *fairplay* edo joko garbi bat behar dela. Hori kontuan izanda, nola erreparatu diozu azken asteetako eztabaidari?

Fairplay horrek esan nahi du bide orriari behar bezala jarraitu behar zaiola: egia, erreparazioa eta justizia, eta gero etorriko dira memoria politikak. Memoriak esan nahi du iraganean gertatutako kontu batzuk aukeratzen ditugula, eta horiek plazaratzen ditugula denok partekatzeke, balio dezan etorkizunean gizar-tegintza egiteko, zauriak sendatzeko. Horretarako, eztabaidak eraikitzaileak izan behar dira, eta ez bakarrik garbiketa kontzeptual bat egiteko; horrek ez du askorik laguntzen.

Lehenik eta behin, egia aipatu duzu.

Memoria ez da hutsaren gainean egiten, zerbaiten gainean egin behar da. Egia ez badago, tranpa bat dago. Memoria sinesgarria eta transbertsala izateko, adostutako egia batetik abiatu behar da. Neurri handi batean, hori falta zaigu.

ETari dagokionez, dena argitu ez bada ere, argitu da neurri handi batean zer gertatu zen: nortzuk izan ziren biktimak, nortzuk egileak. Estatuari dagokionez, argitu beharrekoak daude. Ezin da arinegi joan memoriara, zer gogoratu behar dugun jakin

gabe. Alegia, har ditzagun serio egia politikak.

Eta nola ezarri egia?

Epaileek izan beharreko neutral-tasuna birsortu behar da. Egia batzorde baten bitartez egin behar-ko litzateke hori. Hemen, egia batzordetik hurbilen daudenak Euskadiko eta Nafarroako balorazio batzordeak dira, baina ez dira erabateko egia batzordeak. Eta halakoek sortu beharreko argirik ez dagoen bitartean, nekez egingo dugu eztabaida serio bat. Adibidez, balorazio batzordean askotan ikusi da: bertsio ofizial-letan sakonduz gero, eta txosten forentseak ikusiz gero, asko dago egiteko egiaren bila.

Balorazio batzordeak urtero aurkezten du bere txostena, baina salatu izan du ez dela behar bezala gizarteratzen.

Txiki eta Otaegi aitortuak izan ziren, baina batzuetan badirudi lege horiek dauzkaten egia mekanismoak erdi klandestinoak direla. Legea ez da klandestino, lan egiteko modua ez da klandestino, baina gero ez da ahalegin bat egiten handik ateratzen diren ondorioak gizarteratzeko. Hainbat eta hainbat oztupo daude,

eta borondate falta oihartzuna emateko. Eztabaidak sortzen direnean, horiek ez baleude bezala funtzionatzen dugu. Aldarrikatzen diren pluraltasuna eta aniztasuna ez dira praktikatzen, eta bakoitza bere jendearekin geratzen da.

Zer arrisku dakartza horrek?

Borroka bada nik nire egia inposatzea, nire iturriak erabilia eta alde bateko ikuspegiarekin, uste dut nekez iritsiko garela kontsentsu minimo batetara. Kontsentsu minimoa litzateke giza eskubideen urraketa larri guztiak aitortzea eta herriko plazan jartzea. Injustuak izan ziren, eta eskatzen du erantzuleak azaltzea. Alderdi politiko batzuei autokritika eskatzen zaie, eta ondo dago, baina beste batzuek ere egin beharko dute hori.

Nola lortu aniztasun edo neutraltasun hori? Egungo erakundeek rol hori betetzen dute?

Bakoitzak bere funtzioa bete behar du. Normala da gobernu batean Gogora gisako bat egoitea. Terrorismoaren kontrako legearen bitartez zentro bat sortu bada terrorismoa ikertzeko, hori ere zilegi da. Baina, duela gutxi



«Gogora-k eta Terrorismoaren Biktimen Oroimenerako Zentroak ez dute nazioarteko estandarren arabeko neutraltasun bermerik»

«Oraindik, aitortza erreibindikatu behar da; ez da aitortu gertatu zena, eta ez dira erantzuleak identifikatu»